

SAN TORIBIO-ACEDO

Vasco-Navarro trenbideko
ibilbide berdea



4



Estellerria eta Bergara lotzen zituen Vasco-Navarro trenbide zaharraren Arabako ibilbideko azken tarte da. Trenak Ega ibaiarekin paraleloan zeharkatzen zuen Arabako Mendialdea. Gaur egun, trena zihoan bide zaharrean prestatu den ibilbide berdeari esker toki eder askoak ezagutu daitezke, batzuk balio historiko handikoak (Antoñanako herrigune harresiduna eta Santikurutze Kanpezu) eta beste batzuk naturgune eta paisaia bikainak: Lokiz mendilerroko parke naturala, Lasiako Trokako natura erreserba, Izkiko parke naturala eta Iturrietako mendiak. Ibilaldia Nafarroan amaituko da, Acedon.

San Toribio ermita historikotik abiatuko gara, Maeztu eta Musitu artean, eta hasieran Laminoria harana eta Elortzako haitzartea izango ditugu bidelagun.



San Toribio Ermita.

0 km	San Toribio ermitatik hasiko gara ibiltzen. Ermitaren ondoan seinale zutoina dago. Maeztuko geltokirako bidea hartu behar da. Apur bat aurrerago harrobiko errepidea zeharkatu behar duzu eta gero aldapatxo bat igo. Hodi gorri handi bat ikusiko duzu aurrean.
0,15 km	Hodi horrekin paraleloan doan bidea hartu behar duzu, ezkerrera. Hementxe zehar zihoan Vasco-Navarro tren.
0,7 km	Bidegurutzea. Zuzen jarraitu. Tarte honetan Zekuianoko geltoki zaharra ikusiko duzu, eskuinean. Gaur egun etxebizitza partikular polita da.
1 km	Elortzako tunela zeharkatu behar da; bihurgunea dago, baina bidea ondo ikusten da. Metro batzuk ibilitakoan errepide baten beste aldera pasatu behar da zubitxo baten gainetik, eta apur bat aurrerago zubi gorri bat zeharkatu behar da.
2,6 km	Maeztu herrira helduko zara. Aurrera egin behar duzu ezkerreko kaletik geltoki zaharreraino (gaur egun Arraia-Maeztuko udaletxea da).
3 km	Geltokia atzean utzi ondoren, ezkerrean dagoen legarrezko bidetik jarraitu behar duzu.
4,3 km	Errepidea zeharkatu behar duzu pasabide gorri batetik, baina kontuz ibili behar duzu: beste aldera iristen zarenean ibilbidearen kontrako norabidean egongo zara. Pasabidetik irtendakoan ezkerrean egin behar duzu eta aurrean ikusiko duzun bidexka zabal batetik abiatu.

5 km	Bakardadeko Andra Mariaren ermita. Ataurira bidean zoazela, ermitatxo erromaniko hau eskuinean ikusiko duzu, landa baten ondoan.
5,3 km	 Adi! Eskuinera egin behar da; hormigoizko aldapatxoia igo behar duzu. Metro batzuk aurrerago Atauri zeharkatzen duen tunelean sartuko zara; berriro ere Vasco-Navarro trenbide zaharrean zaude.
6,5 km	Ezkerrera jo behar duzu, eta gero errepedearen beste aldera pasatu behar zara azpiko pasagunetik.
6,7 km	Asfalto gainean egin behar dituzu 100 metro baino gehiago. Gero eskuinera egin behar duzu Antoñanarantz joateko.
8,1 km	Azazetako Ega ibaiko pasabidea. Segi bidexkatik. 8,6 kilometroan iturria aurkituko duzu.
8,7 km	Atsedenekua.
9,1 km	Fuenfriako tunela zeharkatu behar duzu (tartekako argiak ipini dituzte oraintsu).



IZKIKO PARKE NATURALA

Arabako Mendialdeko altxorrik preziatuenetakoa da. Natura 2000 Sarean babestutako balio ekologiko handiko pasabide batean dago.

Parke honetan Izki eta Azazetako Ega ibaien inguru harritsu ederretan barreatutako ameztiak (*Quercus pyrenaica*) dira aipagarrienak; guztira, ameztiok hartzen duten azalera Europako handienetakoa da. Izkiko parke naturalean 150etik gora ornodun espezie bizi dira; erdiak baino gehiago interes berezikoat katalogatuta daude.





ANTOÑANAKO HERRIGUNE HISTORIKOA



Arabako hiribildu zaharrenetakoa da; historiaurreko aztarnak ere baditu. Harresia ikusgarria da. Nafarroako errege Antso Jakitunak eraikiarazi zituen XII. mendean, eta gaur egun oraindik ere etxeak daude bertan. Harresien barruan, nonahi daukagu antzinako leinuen arteko borroken aztarnak: **etxe armarridun handiak**, esaterako Hurtado de Mendozatarren dorretxea eta Elorzatarren jauregia, kartzela zaharra (erlezaintzako zentroa da gaur egun), igarobideak eta kale kantoiak. Alde honetako produktu nagusietako bat ezia da; Arabako Mendialdeko labela dauka.

10,7 km

Errepidearen beste aldera joan behar duzu pasabidean zehar; trenbideetan lehenago zeudenen antzekoa da: zurezko zorua eta altzairuzko egitura. Beste aldean ibilbideko interpretazio zentroa dago (Antoñana).



Interpretazio zentroa geltoki zaharraren eta zamalanelarako nasaren aurrean dago. Hartu atsedendaldi bat alde honetako ondare natural, historiko eta etnografikoa hobeto ezagutzeko.

11 km

Antoñanako interpretazio zentroa igaro ondoren, jarraitu Ibilbide Berdearen jarraibideei.

11,6 km

Errepidetik irten behar duzu eta ezkerrean dagoen bide bat hartu; apur bat aurrera eginda trenaren ibilbidea joko duzu.

12,9 km

Bidegurutze bat dago. Ezkerrera egin behar duzu eta gero Azazetako Ega (Berrón) ibaiko zubia zeharkatu.

14,6 km

Errepide gaineko zurezko pasabidea zeharkatu behar duzu. Beste aldean, hurbil, Fresnedoko parkea daukazu. Udan joanez gero, gogoan izan bainatu daitekeela eta otorduetarako prestatuta dagoela.

15,7 km



Bidegurutzea. Zuzen jarraituko duzu. Eskuineko bidea hartuz gero, Santikurutze Kanpezura helduko zinateke.



ANTOÑANAKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Ibilbide honetan ezinbestean bisitatu behar dira Antoñanako geltoki zaharra eta bertako zamalanelarako nasa. Horien ondoan Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdeko interpretazio zentroa inauguratu berri dute. Zentroa hiru bagoitan ezarri da, Arabako Mendialdeko natura ondareari, ondare historikoari eta paisaiei zabalkundea emateko.



16,6 km	 Kontuz! Errepidea gurutzatu behar da. Egin aurrera zuzen, urbanizazioa inguratzen duen asfaltozko bidetik.
17,3 km	Urbanizazioa atzealdetik inguratu ondoren, Vasco-Navarro trenaren bideari jarraitzen dion legarrezko bidexka topatuko duzu eskuinaldean.
18,2 km	 Adi! Errepidea gurutzatu behar da. Zuzen jarraitu.
20,9 km	Zuñigako geltoki zaharra. Atsedengunea.
21,1 km	Errepide baten gurutzagunea, ilargierdi itxurakoa. Zuzen jarraitu behar da; kontuz errepidea zeharkatzean.
22,2 km	Atsedenguneko begiratokira bazoaz, eskuinera begiratuta Kodezeko mendilerroaren ikuspegi ederra daukazu.
23,1 km	Arquijaseko bidezubia. 30 metro garai den zubi ikusgarri hau zeharkatu behar duzu.
23,5 km	Arquijaseko tunela. 1.400tik gora metro egin beharko dituzu mendibarrenetik.
25,9 km	Acedo. Hementxe amaitzen da ibilbidea. Eskuinaldean atsedengunea daukazu (iturria eta mahaia), indarberritu nahi bazenu ere.

LEKU INTERESGARRIAK

**NATURA ETA PAISAIA**

1. Laminoriako harana
2. Izkiko parke naturala
3. Lokiz mendilerroa
4. Lasiako troka
5. Elortzako haitzartea
6. Arquijaseko haitzartea

**KULTURA**

1. Antoñanako harresia
2. Hurtado de Mendozatarren dorretxea (Antoñana)
3. Elorzatarren jauregia (Antoñana)
4. Jasokundeko Andra Mariaren parrokia eliza (Santikurutze Kanpezu)
5. Ibernaloko ermita (Santikurutze Kanpezu)


**AISIALDIRAKO GUNEAK**

1. Santa Luziako parkea (Orbiso)
2. Ibernaloko parkea
3. Fresnedoko parkea
4. Antoñanako hipika zentroa
5. Antoñana: Vasco-Navarro ibilbide berdearen interpretazio zentroa
6. Antoñana: bizikleta alokairua



Bakardadeko Andra Mariaren ermita.

IBILBIDEAREN PROFILA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu: San Toribio ermita, A-4144
Distantzia, guztira: 25,9 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera: 2,5 ordu

Zailtasuna: Txikia
Gomendatutako bizikleta: Paseokoa
Desnibel metatua: 85 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...



ARQUIJASEKO HAITZARTEKO BIDEZUBIA ETA TARTEKAKO ARGIAK DITUEN TUNELA

Ibilbidearen amaieratik hurbil, Lokiz mendilerroaren eta Costalerako haitzen artean, Arquijaseko haitzartea zeharkatu behar da bidezubi beldurgarri baten gainetik. Metro gutxi batzuk ibilita, 30 metroko garaierako **bederatzi arkundun pasagunetik** Acedo edo Arquijaseko tunelean (1.415 metro) sartzen gara. Tuneleko ibilaldia oso atsegina da, argiak aurrera egin ahala pizten baitira mugimendu sentsoreei esker. Nolanahi ere, nahi izanez gero, tunelaren sarrerako etengailua erabil daiteke tunela minutu batzuez argitzeko.

SANTIKURUTZE KANPEZU

Alde honetan barduloen tribua bizi izan zen Kristo aurreko garaian. Behinola hiribildu harresiduna izan zen, baina gaur egun antzinako harresitik hondar batzuk baino ez dira geratzen, kale izen batzuetako aipamenez aparte. Independentziaren gerran, Kanpezuko lurretan bataila ospetsua gertatu zen 1812ko maiatzean, eta karlistadetan ere hainbat borrokaldi izan ziren, inguruetako herrietan ondo gogoratzen duten bezala. Ezin zara etorri alde honetara eta ondokoak ikusi gabe joan: **Jasokundeko Andra Mariaren eliza**, Euskadiko **monumentu historiko** izendatua; Ibernaloko Ama Birjinaren ermita eta bertako harrizko gurutzea; Kristo Santuaren gurutzioa.